

11. ARTIKULUA. HAUTAGAIAK HAUTATZEKO ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- 1.– Honako irizpide hauen arabera hautatuko da zuzendaria. Irizpide horiek ezarritako gehieneko puntuazio honen arabera baloratuko dira:
 - a) Zuzendaritza-proiektua baloratzea eta defendatzea, 70 puntuko gehieneko puntuazioarekin.
 - b) Ikasketa-, prestakuntza- eta lanbide-merezimenduen balorazioa, gehienez 30 punturekin.
- 2.– Izangai bakoitza gehienez ere hiru ikastetxetan aurkeztu ahal izango da hautagai gisa.
- 3.– Hautaketa egiteko, ikastetxeko irakasleen hautagaitzak lehenetsiko dira.
- 4.– Zuzendaritza-proiektuaren balorazioa 10. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.
- 5.– Merezimenduak honela hartuko dira kontuan:
 - a) Akademikoak: titulu ofizialak, hizkuntzen ezagutza, argitalpenak eta sariak.
 - b) Prestakuntzakoak: zuzendaritza-funtzioa betetzeko berariazko prestakuntza, praktiketako ikasleen eta irakasleen tutoretza, prestakuntza-jardueren koordinazioaz, zuzendaritzaz eta tutoretzaz arduratzea, prestakuntza-jardueretan hizlaria izatea, berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan edo Europako programetan parte hartzea, eta ikastaroetan parte hartzea.
 - c) Profesionalak: antzintasuna irakaskuntzako funtzio publikoan eta eskatutako ikastetxeari dagokionez; zuzendaritza-karguak betetzea; zerbitzu-egoera aktiboa; ikastetxeetako eta hezkuntza-administrazioako lanpostuetako gobernu-organoetan parte hartzea eta zuzendaritza-funtzioaren ebaluazio positiboa.
- 6.– Aurreko paragrafoko a), b) eta c) apartatuetan aurreikusitako merezimendu-kategoria bakoitza gehienez 10 punturekin baloratuko da.
- 7.– Hasteko, zuzendaritza-proiektua eta haren defentsa baloratuko dira. Lehenengo fase honetan, hautagaiek, gutxienez, 35 puntu lortu beharko dituzte. Gutxieneko puntuaziora iristen ez diren hautagaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.
- 8.– Hautagai bakarra onartu den ikastetxeetan, ez da beharrezkoa izango hautagaiak bigarren faserako aurkeztutako merezimenduak balioestea.
- 9.– Hautagai bat baino gehiago onartutako ikastetxeetan, hautaketa-batzordeak balioetsiko ditu proiektuaren balorazioan gutxienez 35 puntu lortu dituzten hautagaiek alegatutako eta behar bezala justifikatutako merezimenduak, artikuluko honen 5. eta 6. paragrafoetan ezarritako baremoaren arabera.